# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

**8678**

**651/2007 FORU AGINDUA, abenduaren 17koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, 190 eredua onartzen da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarienak eta errenta egozketa batzuena) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak aurkezten ditu 190 eredua eta lanaren etekinenen, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T eredua ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak jartzeko.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan eta zerga horren arautegia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, arauei buruzko aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarienak eta errenta egozketa batzuena) urteko laburpenaren 190 ereduaren eta lanaren etekinenen, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T ereduaren diseinuan eta edukian.

Horrela beraz, nobedade garrantzitsuen artean azpimarra daiteke Ceutan eta Melillan lortutako errentengatiko kenketak desagertu direla eta atxikipenei eta konturako sarrerei lotutako ekonomi jardueren ondoriozko etekinen baitara irabazi garbia zenbatespen objektiboaren bitartez adierazten duten enpresa jardueren ondoriozkoak batzen direla.

Hori dela eta, beharrezkoa da atxikipenen eta sarrerako kontuen urteko laburpenerako eredu berria, 190 eredua, onartzea, azaroaren 7ko 557/07 Foru Aginduaren –azaroaren 17ko 556/07 Foru Aginduabidez onartutakoa ordezteko. Halaber, beharrezkoa da lanaren etekinenen, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T eredua onartzea, 1999ko abenduaren 28ko Foru Aginduaren bidez onartutako ordezteko.

Foru agindu honen bidez onartutako 190 eredu berrian, Ceuta eta Melillan lortutako errentei dagokien laukitxoa desagertzen da eta H gakora atxikipenei eta konturako sarrerei lotutako eta zenbatespen objektiboaren bidez adierazitako ekonomi jardueren ondoriozko etekinen datuak batzen dira, eta 04 azpigakoaren bidez identifikatzen dira. Horrez gain, 190 ereduaren edukiaren gainerakoari oso-osorik eusten zaio, hartukizunen datuei, datu gehigarrien egiturari eta orain arte erabili izan diren hartukizunak identifikatzeko gakoen zerrendari dagokienez.

Goian azaldutakoaren harira, eta kontuan izanda Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 127.5. artikuluan xedatutakoa, ezarri egiten da artikulu honetako aitorpenak eta ziurtagiriak adierazpenak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehaztutako ereduetan, eran, lekuan eta epeetan egingo direla.

Horregatik guztiagatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- 190 eredua onartzea.

1. 190 eredua onartzen da. Hona hemen izenburua: "Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Atxikipenak eta konturako sarrerak.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

**8678**

**ORDEN FORAL 651/2007, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 17 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 190 de resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Rendimientos del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta, así como los diseños físicos y lógicos a los que deben ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador del modelo 190, y el modelo 10-T relativo al certificado de los rendimientos del trabajo, de actividades económicas y de premios.**

La Norma Foral 3/2007 de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el Decreto Foral 76/2007 de 11 de diciembre por el que se aprueba el Reglamento del citado Impuesto, introducen importantes modificaciones normativas que inciden en el diseño y contenido de la declaración resumen anual modelo 190 de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas sobre rendimientos del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de rentas, así como en el modelo 10T relativo al certificado acreditativo de las retenciones practicadas o de los ingresos a cuenta efectuados sobre los rendimientos mencionados.

Así, cabe destacar como novedades importantes, la supresión de la deducción por las rentas obtenidas en Ceuta y Melilla y la incorporación dentro de los rendimientos derivados de actividades económicas sujetos a retención e ingresos a cuenta, de los procedentes de actividades empresariales que determinen su rendimiento neto por el método de estimación objetiva.

Por ello, resulta necesario proceder a la aprobación de un nuevo modelo de declaración resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta practicadas, modelo 190, en sustitución del aprobado por la Orden Foral 557 del 7 de noviembre de 2003, modificada a su vez por la Orden Foral 556 de 17 de noviembre de 2004, así como de un nuevo modelo 10-T de certificado acreditativo de los rendimientos de trabajo, de actividades económicas y premios, en sustitución del aprobado por la Orden Foral 1.422 de 28 de diciembre de 1999.

En el nuevo modelo 190 que se aprueba mediante la presente Orden Foral, desaparece la casilla correspondiente a las rentas obtenidas en Ceuta y Melilla y se incluyen dentro de la clave H los datos correspondientes a los rendimientos de actividades económicas en estimación objetiva sujetos a retención e ingreso a cuenta identificándose, a su vez, mediante la nueva subclave 04. Se mantiene en su integridad el resto del contenido del modelo 190 en lo relativo a los datos de la percepción, la estructura de los datos adicionales y la relación de claves identificativas de las percepciones que han venido hasta ahora utilizándose.

A la vista de lo anteriormente expuesto y considerando que el apartado 5 del artículo 127 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, establece que las declaraciones y certificados a que se refiere este artículo, se realizarán en los modelos, forma, lugar y plazos que determine el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

En su virtud, y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobación del modelo 190

1. Se aprueba el modelo 190 "Retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Rendimientos

Lanaren etekinak, jarduera ekonomikoenak eta sarienak. Urteko aburpena". Foru agindu honen I. eranskinean jasotako eredu hori ondoko agiriek osatzen dute:

a) Laburpen orriak, bi ale ditu: bata Administrazioarentzat eta bestea, berriz, interesdunarentzat.

b) Barneko orria, Hartzaileen izenen zerrenda, bi ale ditu: bat Administrazioarentzat eta bestea, berriz, interesdunarentzat.

2. Arabako Foru Aldundiaren laguntza programa erabiltzearen ondoriozko 190 ereduaren paperezko inprimakiak eta inprimaki ofizialak balio berbera dute.

Bigarren.- 190 eredua aurkeztu behar dutenak

1. Pertsona fisiko eta juridikoek, eta gainerako erakundeek, baita Administrazio publikoek ere, erabili beharko dute 190 eredua, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioz atxiki edo konturako sarrerak egin behar badituzte, zerga horren arautegiaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, eta behartuta badaude ondoko errentetatik baten bat –salbuetsiak barne– ordaintzera:

a) Lan etekinak, kargatik salbuetsitako joan-etorrietarako dietak eta bidai gastuak barne.

b) Ondorengo ekonomi jardueren kontraprestazio diren etekinak.

1. Zergaren Arautegiaren 115. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako lanbide jarduerak.

2. Zergaren Arautegiko 115. artikuluko 4. paragrafoan aipatutako nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak.

3. Zergaren Arautegiko 115. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako basogintza jarduerak.

4. Zergaren Arautegiko 115. artikuluko 6. paragrafoaren 2 zenbakian xedatutako zenbatespen objektiboko metodoaren bidez zehaztutako etekin garbien iturri diren ekonomi jarduerak.

c) Jabetza intelektualaren eta industrialaren ziozko etekinak, laguntza teknikoa ematearen ziozkoak, ondasun higigarriak, negozioak edo meatzeak errentatzearen ziozkoak, aurreko ondasunak azpierrentatzearen ziozkoak, eta irudi eskubidea lagata jasotzen direnak, Zergaren Arautegiaren 100.2. b) artikuluan jaso bezala.

d) Zergaren Arautegiko 10.2.c) artikuluan aipatutako joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioen ondorioz ematen diren sariak, haien kalifikazio fiskala gorabehera.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Zergaren Foru Arauaren 9. artikuluko 9. paragrafoan xedatutakoaren arabera salbuetsitako bekak badira, zenbatekoa urtean 3.000 euro baino gutxiagokoa bada, bekok ez dira 190 eredura bilduko.

Hirugarren. 190 eredua aurkezteko erak

"Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Lanaren etekinak, jarduera ekonomikoenak eta sarienak. Urteko laburpena" 190 eredua ondoko irizpideak kontuan izaki aurkeztuko da:

1. Gehienez 25 hartukizun erregistro dituzten zergadunen aitorpenak ondoko bideak erabilita aurkeztu beharko dira zergadunaren hautua izaki:

a) Inprimakian. Horrela bada, aitorpena foru agindu honen lehenengo paragrafoan onartutako 190 ereduan zehaztutako formularioan zein Arabako Foru Aldundiaren laguntza programak sortutako paperezko inprimakian ahal izango da aurkeztu.

b) Ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarrian, foru agindu honen zazpigarren eta zortzigarren paragrafoetan ezarritakoa betez. Euskarriek ondoko ezaugarriak izan behar dituzte:

- Mota: Mota: CD-R (Compact Disc Recordable), 12 cm-koa.
- Edukiera: 700 MB gehienez.
- Formatua: ISO/IEC DIS 9660:1999, Joliet luzapenarekin zein hura gabe.
- Saio anitz: ez.

del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta. Resumen anual". Dicho modelo, que figura como anexo I de la presente Orden Foral, se compone de los siguientes documentos:

a) Hoja resumen, que comprende dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado.

b) Hoja interior de relación nominativa de perceptores, que consta, asimismo, de dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado.

2. El impreso en papel del modelo 190 que resulte de la utilización del programa de ayuda de la Diputación Foral de Álava tendrá la misma validez que el impreso oficial.

Segundo.- Obligados a presentar el modelo 190

1. El modelo 190 deberá ser utilizado por las personas físicas, jurídicas y demás entidades, incluidas las Administraciones Públicas que, estando obligadas a retener o ingresar a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas conforme a lo establecido en el artículo 102 del Reglamento de dicho impuesto, satisfagan o abonen alguna de las siguientes rentas, incluidas las exentas:

a) Rendimientos del trabajo, incluidas las dietas por desplazamiento y gastos de viaje exceptuadas de gravamen.

b) Rendimientos que sean contraprestación de las siguientes actividades económicas:

1º. Actividades profesionales a que se refieren los apartados 1 y 2 del artículo 115 del Reglamento del Impuesto.

2º. Actividades agrícolas y ganaderas a que se refiere el apartado 4 del artículo 115 del Reglamento del Impuesto.

3º. Actividades forestales a que se refiere el apartado 5 del artículo 115 del reglamento del Impuesto.

4º. Actividades económicas cuyos rendimientos netos se determinen con arreglo al método de estimación objetiva previstas en el número 2º del apartado 6 del artículo 115 del Reglamento del Impuesto.

c) Rendimientos procedentes de la propiedad intelectual, industrial, de la prestación de asistencia técnica, del arrendamiento de bienes muebles, negocios o minas, del subarriendo sobre los bienes anteriores y de los procedentes de la cesión del derecho a la explotación del derecho de imagen a que se refiere el artículo 100.2, b) del Reglamento del Impuesto.

d) Los premios que se entreguen como consecuencia de las participaciones en juegos, concursos, rifas o combinaciones aleatorias, a que se refiere el artículo 100.2, c) del Reglamento del Impuesto, con independencia de su calificación fiscal.

2. No obstante, lo dispuesto en el apartado anterior, tratándose de becas exentas en virtud de lo dispuesto en el punto 9º del artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto, no se incluirán en el modelo 190 aquellas cuya cuantía sea inferior a 3.000 euros anuales.

Tercero. Formas de presentación del modelo 190

El modelo 190 de "Retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Rendimientos del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta. Resumen anual" se presentará con arreglo a los criterios que a continuación se especifican:

1º. Las declaraciones que correspondan a obligados tributarios que contengan hasta 25 registros de percepciones, deberán presentarse, a elección del obligado tributario, a través de alguno de los siguientes medios:

a) En impreso. En tal caso, la declaración podrá presentarse tanto en el formulario ajustado al modelo 190 aprobado en el apartado primero de la presente Orden Foral, como en el papel impreso generado con el programa de ayuda de la Diputación Foral de Álava.

b) En soporte directamente legible por ordenador con arreglo a lo establecido en los apartados séptimo y octavo de la presente Orden Foral. Los soportes deberán cumplir las siguientes características:

- Tipo: CD-R (Compact Disc Recordable) de 12 cm
- Capacidad: hasta 700 MB
- Formato ISO/IEC DIS 9660:1999, con extensión o sin extensión Joliet
- No multisesión

c) Internet bidez, “diputaciondigital” atariaren bitartez.

2. 25 hartukizun erregistro baino gehiago dituzten zergadunen aitorpenak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian (CD-R) aurkeztu beharko dira, foru agindu honen zazpigarren eta zortzigarren paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorrita, edo Internet bidez, “diputaciondigital” atariaren bitartez.

Laugarren. 190 eredua ordenagailu bidez irakurtzeko euskarrien diseinu fisikoak eta logikoak onartzea.

Bat. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak izan behar dituen diseinu fisiko eta logikoak onartu dira, baita 190 ereduan erakutsi beharreko informazioa daukaten fitxategien diseinu logikoak ere, bai ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian bai bide telematikoen bidez aurkezten direnean. Diseinu fisiko eta logiko biok foru agindu honen II. eranskinean agertzen dira.

Bi. Ordenagailu bidez irakurtzeko moduko euskarrian aurkeztuko behar diren atxikipen eta konturako sarreren urteko laburpenak banaka edo taldeka egin daitezke, baldin eta dagokion artxiboak atxikitzaile edo kontura sartzeko behartutako bakarraren datuak edo gehiagorenak eramaten baditu.

Hiru. Ordenagailu bidez irakurtzeko moduko euskarrian aurkeztuko behar diren atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenak banaka edo taldeka egiteko, ez da beharrezkoa izango aldez aurretik inolako eskabiderik aurkeztea.

Bosgarren. 190 eredua aurkezteko epea

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 127.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, urte batean atxikitako eta kontura sartutako kopuruen laburpenaren 190 eredua hurrengo urteko urtarrileko lehen hogeita bost egunetan aurkeztu behar da.

Dena den, urte batean atxikitako eta kontura sartutako kopuruen laburpenaren 190 eredua ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezten bada, hurrengo urteko urtarrilaren lehen hogeita hamar egunetan aurkeztu beharko da. Ondore horietarako, urte batean atxikitako eta kontura sartutako kopuruen laburpenaren 190 eredua telematikoki aurkezteak eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezteak balio berbera dute.

Seigarren. 190 eredua aurkezteko lekua

urte batean atxikitako eta kontura sartutako kopuruen laburpenaren 190 eredua honelaxe aurkeztuko da:

1. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulegoetan.

Aurkezpenak kopia bikoitzean aurkezten badira, interesatuari kopia zigilatua emango zaio, edo bestela, aurkeztu izanaren egiaztagiria.

2. Posta arruntez edo ziurtatuz, aitorpenaren originala edo aitorpena agertzen duen paper inprimatuarekin batera.

Aitorpena aurkeztu izanaren egiaztagiria lortzeko, aitorpena nahitaez Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean aurkeztu beharko da zuzenean.

Derrigorrezkoa izango da Arabako Foru Aldundiak emandako identifikazio txartela itsastea horretarako propio inprimakian dagoen lekuan.

Zazpigarren. 190 eredua ordenagailu bidez irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko prozedura.

Bat. Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko banakako aurkezpenetan, zergadunak ondoko agiriak aurkeztu beharko ditu:

190 ereduko laburpen orriaren bi aleak, bai administrazioarentzat, bai interesdunarentzat, direnak. Ale bakoitzean, horretarako propio dagoen lekuan, Arabako Foru Aldundiak emango duen identifikazio txartela itsatsi behar da. Halaber, aleok behar den moduan sinatu behar dira, eta kasuan kasuko esparruetan sinatzaileen nortasuna

c) Vía Internet, a través del portal “diputaciondigital”.

2º. Las declaraciones que correspondan a obligados tributarios que contengan más de 25 registros de percepciones, deberán presentarse, obligatoriamente en soporte directamente legible por ordenador (CD-R) con arreglo a lo establecido en los apartados séptimo y octavo de la presente Orden Foral o vía Internet a través del portal de “diputaciondigital”.

Cuarto. Aprobación de los diseños físicos y lógicos a los que deben ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador del modelo 190.

Uno. Se aprueban los diseños físicos a los que deberán ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador, así como los diseños lógicos a los que deberán ajustarse los ficheros que contengan la información a suministrar en el modelo 190 tanto en el supuesto de presentación del mismo mediante soporte directamente legible por ordenador como por vía telemática. Ambos diseños físicos y lógicos, figuran en el anexo II de la presente Orden Foral.

Dos. Los resúmenes anuales de retenciones e ingresos a cuenta en soporte directamente legible por ordenador podrán presentarse de forma individual o de forma colectiva, según que el archivo correspondiente contenga los datos de un solo retenedor u obligado a ingresar a cuenta, en el primer caso, o de varios, en el segundo.

Tres. No será necesario efectuar petición previa alguna para realizar la presentación del resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta en soporte directamente legible por ordenador ya sea de forma individual o colectiva.

Quinto. Plazo de presentación del modelo 190

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 127.2 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la presentación del resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta, modelo 190, se realizará en los primeros veinticinco días naturales del mes de enero de cada año, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan al año inmediato anterior.

No obstante, en el caso de que el resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta, modelo 190, se presente en soporte directamente legible por ordenador, la presentación del mismo se realizará en los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados que correspondan al año inmediato anterior. A estos efectos, se entenderá que la presentación telemática de la declaración resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta, modelo 190, tiene la consideración de presentación en soporte directamente legible por ordenador.

Sexto. Lugar de presentación del modelo 190

La presentación del resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta, modelo 190, se realizará:

1. Directamente en las oficinas del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Si las declaraciones se presentan por duplicado se devolverá al interesado la copia sellada o, en su caso, diligencia acreditativa de su presentación.

2. Por correo ordinario o certificado, incluyendo el original de la declaración o el papel impreso en que obre la misma.

Para obtener diligencia acreditativa de presentación de la declaración será precisa su presentación directamente en el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Será obligatorio adherir la etiqueta identificativa suministrada por la Diputación Foral de Álava en el espacio del impreso reservado al efecto.

Séptimo. Procedimiento de presentación del modelo 190 en soporte directamente legible por ordenador

Uno. Tratándose de presentación individual en soporte directamente legible por ordenador, el obligado tributario deberá presentar los siguientes documentos:

Los dos ejemplares, para la Administración y para el interesado, de la hoja-resumen del modelo 190, en cada uno de los cuales deberá adherirse, en el espacio correspondiente, la etiqueta identificativa que suministra la Diputación Foral de Álava. Asimismo, dichos ejemplares deberán estar debidamente firmados, indicando en los espacios

agertu behar da, baita laburpen orrian eskatutako gainerako datuak ere, taldekako aurkezpenari buruzkoak izan ezik.

Ondore horietarako, Arabako Foru Aldundiak landutako laguntza programak sortutako laburpen orriak edo karatulak baliagarriak izango dira ere.

190 eredua bulegoan aurkeztu eta zigilua ipini ondoren, aitortzaileak laburpen orriaren interesatuarentzako alea hartuko du aurkezpenaren frogagiri gisa.

Bi. Ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarrian egiten den aitorpena taldearena izanez gero, hori aurkezten duen pertsonak edo erakundeak honako agiriak ere aurkeztuko ditu:

a) 190 ereduko laburpen orriaren bi aleak, bai administrazioarentzat, bai aurkezlearentzat, direnak. Ale bakoitzean, horretarako propio dagoen lekuan, Arabako Foru Aldundiak emango duen identifikazio txartela itsatsi behar da.

Bi ale horiek sinatuta egon behar dute, eta horretarako propio dagoen lekuan honako datu hauek agertuko dira: sinatzailearen identifikazioa, aitortzaileen kopurua eta zerrendatutako pertsona edo erakundeen kopurua, bai eta ekitaldiarena eta aurkezpen motarena ere. Ondore horietarako, Arabako Foru Aldundiak landutako laguntza programak sortutako laburpen orriak baliagarriak izango dira ere.

Bulegoan aurkeztu eta zigilua ipini ondoren, aitortzaileak laburpen orriaren interesatuarentzako alea hartuko du aurkezpenaren frogagiri gisa.

b) 190 ereduaren laburpen orri horien bi aleak (bat, administrazioarentzat; bestea, interesdunarentzat) behar bezala sinatuta eta beteta; orri horiek taldeko aurkezpenean jasotzen diren zergadun bakoitzari buruzkoak izango dira.

Ale bakoitzean, pertsona edo erakunde aitortzailearen identifikazio txartela, Arabako Foru Aldundiak emandakoa, itsatsi behar da. Dokumentazioa jasotzen duen bulegoak behin zigilatu ondoren, aitorleei dagozkien laburpen orrien “interesdunarentzako alea” jasoko du aurkezleak.

Hala ere, aurkeztu diren orrien kopuruak hala eskatuko balu, eta dokumentazioa biltzea arintzeko asmoz, aurkezleak jaso ditzake zigilatutako aleak beranduago; hala bada, behar bezala jakinaraziko zaio noiz jaso.

Hiru.- Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri guztiak behinbehinekoak izango dira, haien prozedura egin eta frogatu arte. Foru agindu honetan ezarritako diseinura eta gainerako zehaztasunetara egokitzen ez badira, ez direla aurkeztu ulertuko da.

Zortzigarrena.- 190 ereduaren ordenagailu bidez irakurtzeko euskarrien identifikazioa.

Bat. Ordenagailuan zuzenean irakurtzeko moduko banakako euskarriak kanpoaldean itsatsita eramango du ondorengo datuak adierazitako hurrenkeran jasotzen dituen etiketa:

a) Ekitaldia
b) Aurkezpen eredua: 190.
c) Aitorlearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).
d) Aitorlearen izen-abizenak edo sozietatearen izena.
e) Aitorlearen helbidea, udalerria eta posta kodea.
f) Harremanetan jartzeko pertsonaren izen-abizenak.
g) Pertsona horren telefono zenbakia eta luzapena.
h) Erregistro kopurua guztira.

Aipatutako datuak jasotzeko, nahikoa izango da datu bakoitza idatziz jartzea, aurreko zerrendaren arabera dagokion letra aurretik daukatela.

Artxiboak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri bat baino gehiago badu, denek eramango dute honela zenbatutako etiketa: 1/n, 2/n, eta abar. Horietan “n” euskarri kopurua izango da. Bigarrenaren eta hurrengo bolumenen etiketan bakarrik adierazi beharko dira a), b), c) eta d) letretan agertzen direnak.

correspondientes la identidad del firmante, así como los restantes datos que en la citada hoja-resumen se solicitan, excepto los relativos a la presentación colectiva.

A estos efectos, serán igualmente válidas las hojas-resumen ó carátulas generadas por el Programa de Ayuda que, en su caso, elabore la Diputación Foral de Álava.

Una vez sellado por la oficina receptora, el declarante retirará el “ejemplar para el interesado” de la hoja-resumen del modelo 190 presentado, que servirá como justificante de la entrega.

Dos. Tratándose de presentación colectiva en soporte directamente legible por ordenador, la persona o entidad presentadora entregará los siguientes documentos:

a) Los dos ejemplares para la Administración y para el interesado, de la hoja-resumen correspondiente al presentador, modelo 190, en cada uno de los cuales deberá adherirse en el espacio correspondiente la etiqueta identificativa que suministra la Diputación Foral de Álava.

Dichos ejemplares deberán estar firmados, dejando constancia en el espacio reservado al efecto, de la identidad del firmante, del número total de declarantes y del número total de personas o entidades relacionadas, así como del ejercicio y tipo de presentación. A estos efectos, serán igualmente válidas las hojas-resumen generadas por el Programa de Ayuda que en su caso, elabore la Diputación Foral de Álava.

Una vez sellados por la oficina receptora, el presentador retirará el “ejemplar para el interesado” de la hoja-resumen, que servirá como justificante de la entrega.

b) Los dos ejemplares para la Administración y para el interesado, de las hojas-resumen del modelo 190 correspondientes a todos y cada uno de los obligados tributarios declarantes contenidos en la presentación colectiva, debidamente firmados y cumplimentados.

Cada uno de los ejemplares deberá llevar adherida la etiqueta identificativa de la persona o entidad declarante facilitada por la Diputación Foral de Álava. Una vez sellados por la oficina receptora, el presentador retirará los “ejemplares para el interesado” de las hojas-resumen correspondientes a los declarantes.

No obstante, si el número de hojas-resumen presentadas así lo aconseja y con el objeto de agilizar la recogida de documentos, la retirada por el presentador de los ejemplares sellados podrá realizarse con posterioridad a la presentación, lo que le será oportunamente comunicado.

Tres.- Todas las recepciones de soportes directamente legibles por ordenador serán provisionales a resultas de su proceso y comprobación, teniéndose por no presentados cuando no se ajusten al diseño y demás especificaciones establecidas en la presente Orden Foral.

Octavo.- Identificación de los soportes directamente legibles por ordenador del modelo 190

Uno. El soporte individual deberá tener una etiqueta adherida en el exterior en la que se harán constar los datos que se especifican a continuación y, necesariamente, por el mismo orden:

a) Ejercicio.
b) Modelo de presentación: 190.
c) Número de Identificación Fiscal (NIF) del declarante.
d) Apellidos y nombre o razón social del declarante.
e) Domicilio, municipio y código postal del declarante.
f) Apellidos y nombre de la persona con quien relacionarse.
g) Teléfono y extensión de dicha persona.
h) Número total de registros.

Para hacer constar los referidos datos, bastará consignar cada uno de ellos precedido de la letra que le corresponda según la relación anterior.

En el supuesto de que el archivo conste de más de un soporte directamente legible por ordenador, todos llevarán su etiqueta numerada secuencialmente: 1/n, 2/n, etc., siendo “n” el número total de soportes. En la etiqueta del segundo y sucesivos volúmenes sólo será necesario consignar los datos indicados en las letras a), b), c) y d) anteriores.

Bi. Ordenagailuan zuzenean irakurtzeko moduko taldekako euskarriak kanpoaldean itsatsita izango du aurkezlearen ondorengo datuak adierazitako hurrenkeran jasotzen dituen etiketa:

a) Ekitaldia
b) Aurkezpen eredua: 190.
c) Aurkezlearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).
d) Aurkezlearen izen-abizenak edo sozietatearen izena.
e) Aurkezlearen helbidea, udalerria eta posta kodea.
f) Harremanetan jartzeko pertsonaren izen-abizenak.
g) Pertsona horren telefono zenbakia eta luzapena.
h) Erregistro kopurua guztira.
i) Aitorleen kopurua guztira.
j) Hartzaileen kopurua guztira.

Aipatutako datuak jasotzeko, nahikoa izango da datu bakoitza idatziz jartzea, aurreko zerrendaren arabera dagokion letra aurretik daukatela.

Aurkezpenak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri bat baino gehiago badu, denek eramango dute honela zenbatutako etiketa: 1/n, 2/n, eta abar. Horietan "n" euskarri kopurua izango da. Bigarrenaren eta hurrengo bolumenen etiketan bakarrik adierazi beharko dira a), b), c) eta d) letretan agertzen direnak.

Bederatzigarren. 190 eredua Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak.

190 eredua Internet bidez aurkezteko, ondoko betekizunak bete behar dira:

1. Aitortzaileak Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFK) izan beharko du.

2. Arabako Foru Aldundiaren "Diputaciondigital" zerbitzuetan alta emanda egon behar du aitortzaileak, martxoaren 11ko Diputatuen Kontseiluaren 27/2003 Foru Dekretuan ezarritako prozedurarekin bat etorrita.

3. 190 ereduaren aitorpena telematikoki aurkezteko, aitorleak aldez aurretik laguntza programa erabili beharko du aurkeztu beharreko aitorpena duen fitxategia lortze aldera. Laguntza programa Arabako Foru Aldundiak garatutakoa edo formatu bereko fitxategia eskura jartzen duen bestelako programa izan daiteke.

Fitxategi horren edukia bat etorri behar da foru agindu honen II. eranskinean 0 motako, 1 motako eta 2 motako diseinuekin.

Hamargarren. 10-TV eredua onartzea.

Foru agindu honen III. eranskinean agertutako lanaren etekinenen, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T eredua onartzen da eta atxikitzeko zein kontura sartzeko behartutako zergadunaren alde jaulki beharko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik ondoko foru aginduak indarrik gabe geratzen dira:

- 2003ko azaroaren 7ko 557 Foru Aginduaren bidez onartu egin ziren 190 eredua —Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak eta sarienak) urteko laburpena adieraztekoa—, eta eredu horren barruko orrien ordez ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisikoak eta logikoak.

- 2003ko azaroaren 7ko 557 Foru Agindua aldatzeko 2004ko azaroaren 17ko 556 Foru Agindua. Haren bidez onartu egin ziren 190 eredua —Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak eta sarienak) urteko laburpena adieraztekoa—, eta eredu horren barruko orrien ordez ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisikoak eta logikoak.

1999ko abenduaren 28ko 1422 Foru Agindua. Honen bidez, lanaren etekinenen, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T eredua onartzen da.

Dos. El soporte colectivo, directamente legible por ordenador deberá tener una etiqueta adherida en el exterior en la que se harán constar los datos del presentador que se especifican a continuación y, necesariamente, en el mismo orden:

a) Ejercicio.
b) Modelo de presentación: 190.
c) Número de Identificación Fiscal (NIF) del presentador.
d) Apellidos y nombre o razón social del presentador.
e) Domicilio, municipio y código postal del presentador.
f) Apellidos y nombre de la persona con quien relacionarse.
g) Teléfono y extensión de dicha persona.
h) Número total de registros.
i) Número total de declarantes presentados.
j) Número total de perceptores presentados.

Para hacer constar los referidos datos, bastará consignar cada uno de ellos precedido de la letra que le corresponda según la relación anterior.

En caso de que la presentación conste de más de un soporte directamente legible por ordenador, todos llevarán su etiqueta numerada secuencialmente: 1/n, 2/n, etc., siendo "n" el número total de soportes. En la etiqueta del segundo y sucesivos volúmenes sólo será necesario consignar los datos indicados en las letras a), b), c) y d) anteriores.

Noveno. Condiciones generales para la presentación del modelo 190 por Internet.

La presentación del modelo 190 por Internet estará sujeta a los siguientes requisitos:

1. El declarante deberá disponer de Número de Identificación Fiscal (NIF).

2. El declarante deberá estar dado de alta como usuario de los servicios "Diputaciondigital" de la Diputación Foral de Álava de acuerdo con el procedimiento establecido en el Decreto Foral 27/2003 del Consejo de Diputados de 11 de marzo.

3. Para efectuar la presentación telemática de la declaración correspondiente al modelo 190, el declarante deberá utilizar previamente un programa de ayuda para obtener el fichero con la declaración a transmitir. Este programa de ayuda podrá ser el desarrollado por la Diputación Foral de Álava u otro programa que obtenga un fichero con el mismo formato.

El contenido de dicho fichero se deberá ajustar a los diseños de tipo 0, de tipo 1 y de tipo 2 establecidos en el anexo II de la presente Orden Foral.

Décimo. Aprobación de modelo 10-T.

Se aprueba el modelo 10-T relativo al certificado de los rendimientos del trabajo, de actividades económicas y de premios que figura en el anexo III de la presente Orden Foral y que deberá ser expedido a favor del contribuyente por el obligado a retener o ingresar a cuenta.

Disposición derogatoria única.

A partir de la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas las siguientes Ordenes Forales:

- La Orden Foral 557 de 7 de noviembre de 2003 por la que se aprueba el modelo 190 para el resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas sobre rendimientos del trabajo, de determinadas actividades económicas y premios, así como los diseños físicos y lógicos para la sustitución de las hojas interiores de dicho modelos por soportes directamente legibles por ordenador.

- La Orden Foral 556 de 17 de noviembre de 2004, por la que se modifica la Orden Foral 557 de 7 de noviembre de 2003, por la que se aprueba el modelo 190 para el resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas sobre rendimientos del trabajo, de determinadas actividades económicas y premios, así como los diseños físicos y lógicos para la sustitución de las hojas interiores de dicho modelos por soportes directamente legibles por ordenador.

- La Orden Foral 1422 de 28 de diciembre de 1999, por la que se aprueba el modelo 10-T relativo al certificado de los rendimientos del trabajo personal, de determinadas actividades económicas y premios.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta lehenengo aldiz aplikatu da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipen eta konturako sarreren 2007. urteko laburpenaren aitorpenak -190 eredua-, 2008ko urtarrilaren 1etik aurkeztutakoak, egitean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 17a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSE LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasuneko zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y afectará por primera vez a las declaraciones resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, modelo 190, que se presenten a partir del 1 de enero de 2008 respecto a la información correspondiente al ejercicio 2007.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2007.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSE LUIS CIMIANO RUIZ.– El Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

**I. eranskina** **Anexo I**

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila / Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

**PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA LANAREN ETEKINAK, JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK, SARIAK ETA ERRENTA EGOZKETA BATZUK**

IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA SOBRE RENDIMIENTOS DEL TRABAJO, DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS, PREMIOS Y DETERMINADAS IMPUTACIONES DE RENTA

**190**

**1 IDENTIFIKAZIOA / *IDENTIFICACIÓN***

IDENTIFIKATZEKO ETIKETA JARTZEKO ESPAZIOA
*ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**2 EKITALDIA ETA AURKEZTEKO MODUA / *EJERCICIO Y TIPO DE PRESENTACIÓN***

EKITALDIA / *EJERCICIO*..................................................

Aitorpen osagarria / *Declaración complementaria*..................................

Ordezko aitorpena / *Declaración sustitutiva*...........................................

AURKEZTEKO MODUA: / *PRESENTACIÓN EN:*

Inprimakia / *Impreso* ..........................................................

Euskarria / *Soporte*
- Indibiduala / *Individual* ..........................................
- Kolektiboa / *Colectivo*
  - Aurkezlea / *Presentador* .........
  - Aitorpen-egilea / *Declarante* ....

**3 HARREMANETARAKO PERTSONA / *PERSONA DE CONTACTO***

| DEITURAK ETA IZENA / *NOMBRE Y APELLIDOS* | TELEFONOA / *TELÉFONO* |
|---|---|
| | |

**4 AITORPEN LABURPENA / *RESUMEN DECLARACIÓN***

ZERRENDATUTAKO HARTUKIZUN GUZTIEN KOPURUA / *NUMERO TOTAL DE PERCEPCIONES RELACIONADAS* (*)................................ 1

ZERRENDATUTAKO HARTUKIZUN GUZTIEN ZENBATEKOA
*IMPORTE DE LAS PERCEPCIONES RELACIONADAS* ........................ 2

ZERRENDATUTAKO ATXIKIPENEN ETA/EDO KONTURAKO SARREREN ZENBATEKOA
*IMPORTE DE LAS RETENCIONES Y/O INGRESOS A CUENTA RELACIONADOS* ........................ 3

(*) Jar ezazu aitorpen (edo euskarri) honen barneko orrietan islaturiko hartzaileen kopurua guztira gako berean edo desberdinetan pertsona edo entitate bera behin baino gehiagotan azalduz gero, hartzaileak zerredna agertzen diren aldioro zenbatuko dira.
*(*) Consigne el número total de percepciones (registros) reflejadas en las hojas interiores de esta declaración (o soporte). En caso de que una misma persona o entidad figure más de una vez en la misma o en diferentes claves, se computarán tantas percepciones como veces aparezca relacionada.*

**5 AITORPEN LABURPENA / *RESUMEN DECLARACIÓN***

a) EUSKARRI KOLEKTIBOKO DATUEN LABURPENA, (Aurkezleari dagokion laburpen-orrian baino ez dira jarriko datu horiek)
*a) RESUMEN DE LOS DATOS INCLUIDOS EN EL SOPORTE COLECTIVO (Estos datos se cumplimentarán unicamente en la hoja-resumen correspondiente al presentador)*

EUSKARRI KOLEKTIBOAN JASOTAKO PERTSONA EDO ENTITATE AITORTZAILE GUZTIEN KOPURUA
*NÚMERO TOTAL DE PERSONAS O ENTIDADES DECLARANTES INCLUIDAS EN EL SOPORTE COLECTIVO* ........................ 4

EUSKARRI KOLEKTIBOAN JASOTAKO HARTZAILEGUZTIEN KOPURUA
*NUMERO TOTAL DE PERCEPCIONES INCLUIDAS EN EL SOPORTE COLECTIVO* ........................ 5

b) AURKEZLEAREN I.F.Z.
(EUSKARRI KOLEKTIBOAN AGERTZEN DEN PERTSONA EDO ENTITATE ATXIKIPEN-EGILE BAKOITZARI DAGOKION LABURPEN-ORRI GUZTIETAN JARRIKO DA DATU HORI)
*b) N.I.F. DEL PRESENTADOR*
*(ESTE DATO SE CUMPLIMENTARÁ EN TODAS LAS HOJAS-RESUMEN CORRESPONDIENTES A CADA UNA DE LAS PERSONAS O ENTIDADES RETENEDORAS INCLUIDAS EN EL SOPORTE COLECTIVO)* 6

**6** ZIGILUA ETA IZENPEA / *SELLO Y FIRMA*

**7** SARRERA ERREGISTROKO ZIGILUA / *SELLO REGISTRO ENTRADA*

RE. 07/248

**P.S.N. / *P.V.P.* 0,06 €**

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila — Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

**PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK**
***RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS***

LANAREN ETEKINAK, JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK, SARIAK ETA ERRENTA EGOZKETA BATZUK
*RENDIMIENTOS DE TRABAJO, DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS, PREMIOS Y DETERMINADAS IMPUTACIONES DE RENTA*

**IZEN ZERRENDA / *RELACIÓN NOMINAL***

**190**

| Aitortzailearen IFZ / *NIF del declarante* | Aitortzailearen abizenak eta izena edo sozietatearen izena / *Apellidos y nombre o razón social del declarante* | Ekitaldia / *Ejercicio* | Or. / Guztira / *Pág. / Hojas* |
|---|---|---|---|
| | | | |

**1. HARTZAILEA / *PERCEPTOR 1***

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Hartzailearen IFZ / *NIF Perceptor* | Ordezkariaren IFZ / *NIF Representante* | Hartzailearen abizenak eta izena / *Apellidos y nombre del perceptor* | Probintzia / *Provincia* | Sortzapen ek. / *Ej. Devengo* |
| Gakoa / *Clave* — Azpigakoa / *Subclave* | Diru hartukizunak (guztirako zenbatekoa) / *Percepciones dinerarias (importe total)* | Aplikatutako atxikipenak / *Retenciones practicadas* | | |
| Harreman mota / *Tipo de relación* | Gauzatan jasotakoak (balorazioa) / *Percepciones en especie (valoración)* | Kontura egindako sarrerak / *Ingresos a cuenta efectuados* | Jasanarazitako konturako sarreak / *Ingresos a cuenta repercutidos* | |
| Ondorengo zk. / *Nº desc.* — Ezint. / *Discap.* | PFEZn sartu behar ez den zenbatekoa / *Importe no integrable en IRPF* | Gastuak [3/2007 FA 23.a) art.] / *Gastos [art.23, a) NF 3/2007]* | Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioa / *Pensión compensatoria al cónyuge* | |

**2. HARTZAILEA / *PERCEPTOR 2***

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Hartzailearen IFZ / *NIF Perceptor* | Ordezkariaren IFZ / *NIF Representante* | Hartzailearen abizenak eta izena / *Apellidos y nombre del perceptor* | Probintzia / *Provincia* | Sortzapen ek. / *Ej. Devengo* |
| Gakoa / *Clave* — Azpigakoa / *Subclave* | Diru hartukizunak (guztirako zenbatekoa) / *Percepciones dinerarias (importe total)* | Aplikatutako atxikipenak / *Retenciones practicadas* | | |
| Harreman mota / *Tipo de relación* | Gauzatan jasotakoak (balorazioa) / *Percepciones en especie (valoración)* | Kontura egindako sarrerak / *Ingresos a cuenta efectuados* | Jasanarazitako konturako sarreak / *Ingresos a cuenta repercutidos* | |
| Ondorengo zk. / *Nº desc.* — Ezint. / *Discap.* | PFEZn sartu behar ez den zenbatekoa / *Importe no integrable en IRPF* | Gastuak [3/2007 FA 23.a) art.] / *Gastos [art.23, a) NF 3/2007]* | Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioa / *Pensión compensatoria al cónyuge* | |

**3. HARTZAILEA / *PERCEPTOR 3***

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Hartzailearen IFZ / *NIF Perceptor* | Ordezkariaren IFZ / *NIF Representante* | Hartzailearen abizenak eta izena / *Apellidos y nombre del perceptor* | Probintzia / *Provincia* | Sortzapen ek. / *Ej. Devengo* |
| Gakoa / *Clave* — Azpigakoa / *Subclave* | Diru hartukizunak (guztirako zenbatekoa) / *Percepciones dinerarias (importe total)* | Aplikatutako atxikipenak / *Retenciones practicadas* | | |
| Harreman mota / *Tipo de relación* | Gauzatan jasotakoak (balorazioa) / *Percepciones en especie (valoración)* | Kontura egindako sarrerak / *Ingresos a cuenta efectuados* | Jasanarazitako konturako sarreak / *Ingresos a cuenta repercutidos* | |
| Ondorengo zk. / *Nº desc.* — Ezint. / *Discap.* | PFEZn sartu behar ez den zenbatekoa / *Importe no integrable en IRPF* | Gastuak [3/2007 FA 23.a) art.] / *Gastos [art.23, a) NF 3/2007]* | Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioa / *Pensión compensatoria al cónyuge* | |

RE. 07/247

| BATU ETA JARRAI EDO GUZTIRA / *SUMA Y SIGUE O TOTAL* | Hartukizunak / Percepciones | Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak / Retenciones e ingresos a cuenta |
|---|---|---|
| | | |

**P.S.N. / *P.V.P.* 0,06 €**

Arabako Foru Aldundia
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Diputación Foral de Alava
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# PFEZ-ren KONTURAKO ATXIKIPEN ETA DIRU-SARREREN URTEROKO LABURPENA

# RESUMEN ANUAL DE RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA DEL I.R.P.F.

LANAREN ETEKINAK, JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK, SARIAK ETA ERRENTA EGOZKETA BATZUK

*RENDIMIENTOS DEL TRABAJO, DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS, PREMIOS y DETERMINADAS IMPUTACIONES DE RENTA*

# 190 EREDUA
# *MODELO 190*

RE. 07/246

## 190 EREDUA JARRAIPIDEA / INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO 190

190 ereduak osagai hauek dauzka: laburpen orri bat eta hartukizunen xehetasunak jasotzen dituzten barruko orriak. Laburpen orria kasu guztietan bete eta aurkeztu behar da, zeinahi ere den barruko orriak aurkezteko modua: paperean (inprimakia) edo ordenagailuz zuzenean irakurtzen den euskarrian.

**190 eredua aurkeztu behar dutenak.** Honako hauek aurkeztu behar dute 190 eredua: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiko 102. artikuluan ezarritakoaren arabera zerga horren ziozko atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten pertsona fisiko edo juridikoek eta gainerako erakundeek, are herri administrazioek ere, baldin eta ondoren adieraziko diren errentetako bat ordaintzen badute.

**190 ereduan sartu behar diren errentak.** Eredu honetan pertsona edo erakunde aitortzaileak ordaindutako hartukizunak sartu behar dira, errenta hauei dagozkienak hain zuzen:

a) Lanaren etekinak, kargatik salbuetsita dauden joan-etorrien eta bidaia gastuen dietak barne.

Salbuespenez, ez dira sartu behar Zergaren Arautegiko 101, j) artikuluan ezarritakoaren arabera konturako sarrerak egin beharra eragiten ez duten lanaren gauzazko etekinak: enpresek gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeetara, pentsio planetara, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara egindako kontribuzioak edo ekarpenak, zerga oinarria murrizten dutenak. Kontzeptu hauen aitorpena 345 ereduan egin behar da.

b) Jarduera ekonomikoen etekin hauek:

- Zergaren Arautegiko 115. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan aipatutako lanbide jardueren kontraprestazio direnak.
- Zergaren Arautegiko 115.4. artikuluan aipatutako nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren kontraprestazio direnak.
- Zergaren Arautegiko 115.5. artikuluan aipatutako baso jardueren kontraprestazio direnak.
- Zergaren Arautegiko 115.6. artikuluan aipatutako zenbatespen objektiboaren araubideko jardueren kontraprestazio direnak.
